



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko abenduaren 5a

140. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—10-22/LEY-00017. 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Artikuluei eta partidei aurkeztutako zuzenketak (2. or).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-22/LEY-00017. 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.**

### **ARTIKULUEI ETA PARTIDEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren artikululei aurkezturiko zuzenketak eta partidei aurkezturiko argitalpen partziala. Proiektu hori 2022ko azaroaren 7ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **1. ZUZENKETA**

##### **NAVARRA SUMA**

##### **TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua bigarren paragrafoa kentzeko zuzenketa.

«Gainera, zabalgarriak izanen dira, 2023ko ekitaldirako, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluko mugak izan gabe, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrendak murrizteko neurriak finantzatzeko partida guztiak, lehendik daudenak edo ekitaldian horretarako sortu behar direnak; partida horiek "Itxarote-zerrendak" izena izanen dute».

Zioak: Osasun Departamentuaren guztizko aurrekontuak, historiako handienak, 87 milioi euro baino gehiago jasotzen ditu prestazio eta kontzertuetarako. Aurrekontu-partida hau, 2021eko eta 2022ko partidekin batera, prestazio eta itunetarako Nafarroan inoiz egondako handiena da. Aurrekontu osoarekin eta 87 milioi euro baino gehiagorekin prestazio eta itunetarako, uste dugu kudeaketa eraginkor eta efektibo batekin itxarote-zerrendak kontrolatu daitezkeela. Gertatu denez, 2020, 2021 eta 2022an zehar osasun-arloan eta prestazio eta itunen partidan guztizko aurrekontu

kopurutsua egoteak ez du itxarote-zerrenda kontrolatu kontsultetarako, Nafarroan. Arian-arian okerrera egin du, eta itxaroten ari diren pertsonen tasa, biztanle bakoitzekoa, bigarren okerrera da, beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta, nahiz eta gehienek baliabide gutxiago dituzten. Legealdi honetan, Nafarroak historian izan dituen itxaronaldi okerrenak izan ditu kontsulta, kirurgia eta azterketa medikoei dagokienez. Beraz, kudeaketaren porrota izan da datu txar horiek erakarri dituen, eta kudeaketa on batek behar ditu horiek hobetu. Gainera, prestazio eta itunen alorrean partida zabalgarri bat paratzea, nork eta osasuneko pribatizazioak gogor kritikatu bai, baina pribatizazioak beren kritiken jomuga diren gobernuek baino neurri handiagoan erabiltzen dituzten talde parlamentarioek, inkoherentzia galanta da. Inkoherentzia are handiagoa, Nafarroan gobernuan dauden talde horiek berek lege-aurreproiektu bat aurkeztu berri dutenean, zeinaren bitartez zenbait arau aldatzen baitira Osasun Sistema Nazionalaren ekitatea, unibertsaltasuna eta kohezioa indartzeko, xede harturik, besteak beste, osasun-privatizazioetan eginiko gastua mugatzea. Eta erabateko inkoherentzia hori EH-Bildurekin berriki sinatutako Aurrekontu Akordioan adierazi da, zeinetan konpromisoa hartzen baitute osasuneko pribatizazioak murrizte aldera ikerketa bat egiteko, baina, aldi berean, urtez urte partida hori handitzen dute.

#### **2. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 1. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«j bis) 050003 02900 2281 921800 “Erregaiak eta labaingarriak” izenekoa».

Zioak: Beharrezkoa da partida handitzea, ez nahikoa izan daitekeela aurreikusita.

### 3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 6. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«e bis) 540002 52833 2231 311100 “Osasun-larrialdiak artatzeko eta anbulantzien Plana” izenekoa».

Zioak: Osasun-garraioa Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu erkideen zorroan sartutako prestazioen parte da. Lansari-kostuak eta bere hitzarmen kolektiboa KPIaren igoerari lotuta egoteak eragin nabarmena du zerbitzuan, baita erregaien kostuak ere; biak zailak dira kuantifikatzen, eta beharrezkoa egiten dute partida hori zabalgarria izatea.

### 4. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikuluar 9. bis apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa.

«9. bis. Kulturako Departamentuko honako partida hauek:

Nafarroako kultur ondare higiezin jabeen mantentze-lanak eta birgaitzea exijitzeko jarduketak juridikoak».

Zioak: Behar diren baliabideak edukitzeko beharra.

### 5. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK ETA  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Kreditu-zabalpenak izeneko 5. artikulua 10. apartatuari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

«a bis) “Lokal bat egokitzea Barnahuserako” izenekoa».

Zioak: Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuan partida bat sortzeko zuzenketa bati lotuta dago. Beharrezkoa da zabalgarritzat jotzea lokala errealitatera egokitzeko gastuak doitzeko.

### 7. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kideek asistentziaren eta irakaskuntzaren jardura egitea izeneko 22. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkotzat jotzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egungo beharrei erantzuteko.

### 8. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kideek asistentziaren eta irakaskuntzaren jardura egitea izeneko 22. artikulua aldatzeko zuzenketa.

«22. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kideek asistentziaren eta irakaskuntzaren jardura egitea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza asistentzialetako kideak, zeinak jasota baitaude foru lege honen 9.5.e artikuluan,, irakaskuntzaren jardura egiten ahalko dute osasun arloan, eta gainerako osasun langileei bezala ordainduko zaie kontzeptu espezifiko horientatik».

Zioak: Uste dugu foru lege honetako 9.5.e artikuluan adierazitako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritza asistentzialetako kideek ez dutela modurik izan behar guardiak egiteko kasuan kasuko espezialitateko osasun arloko langileen baldintza berberetan. Hori beti, baina are gehiago garai hauetan, non Nafarroako osasun publikoaren hondamena dela-eta –kontsultetarako

itxarote-zerrendak inoiz baino okerrago daude eta oinarritzko osasun laguntzan arazoak daude— ezinbestekoa baita Osasun Departamentuko zuzendaritza taldeetako kideek erabateko prestasuna eta dedikazioa izatea Nafarroako osasunaren kudeaketa eta emaitzak hobetze aldera. Ez litzateke ulertuko zuzendaritzako kide batek guardiak egitea, ordainduta gainera, osasun-sisteman haren esku-hartzea eta erabaki-hartzea eskatuko luketen ezusteko arazoak noiznahi sor daitezkeenean (laguntza-estalduraren gabezia, ohe gabezia edota osasun laguntzarekin zerikusia duen ezusteko oro, zuzendaritza taldearen erabakiak eskatzen dituen). Gainera, harrigarria da osasun arloko zuzendaritza taldeetako kideek guardiak egiteko denbora izatea, postu horiek erabateko dedikazio betea eskatzen baitute. Gure ustez, ordutegirik eta etenik gabeko dedikazio hori halako postuak betetzeko ezinbesteko baldintza da. Eta ulertezina da zuzendaritza taldeetako kideen guardiak bereiz ordaintzea.

## 9. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Aldi baterako kontratupeko medikuen eta fakultatibo espezialisten eskusibotasun araubidea izeneko 23. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Azken urteetan, lanbide-jarduna sistema publikoan egiteaz gain osasungintza-zeregin pribatuan diharduten fakultatiboei eskusibotasun-osagarria kentzearen kontzeptua bertan behera utzi dute autonomia-erkidego gehienek. Kontzeptu jada zaharkitua da, Asturiasen, Galizian eta Nafarroan bakarrik dirauena. Gaur egun, elementu eta tresna batzuk garatuta daude funtzionario publikoan jarduera eta emaitzak zehatz-mehatz ebaluatu ahal izateko; emaitza horiek ez dute zertan okerragoak izan jarduera publikoa eta pribatua egiten duen pertsona batengan eremu publikoan soilik egiten duen beste pertsona batengan baino. Gainera, gaur egun mediku gutxi dagoenez, eta ordainsari-desberdintasun hori Nafarroan dagoenez, eta ez autonomia-erkidego gehienetan, egoera okerragoan gaude profesional onak erakartzeko eta atxikitzeko; izan ere, egoera horren aurrean erkidego mugakideetan lan egitea erabakitzen dute. Gure ustez, Administrazio Publikoaren apustuak emaitzen ebaluazioa eta haren araberako pizgarriak ematea izan behar du, eta ez eskusibotasuna bezalako kontzeptuak.

## 11. ZUZENKETA

### NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Ikerketaren sustapena izeneko 44. artikuluari beste paragrafo bat gehitzeko zuzenketa.

«G20001-G2100-7309-467300 partida, “CENER Fundazioari funtsak ematea I+G+b para proyectos e inversiones en I+D+i-ko proiektu eta inbertsioetarako” izeneko, Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala Fundazioak (CENER) energia berriztagarrien arloan ikerketa- eta garapen-lanak egiteko xedetzat dituen proiektu eta inbertsioak finantzatzeko lortutako maileguren saldoaren amortizazioari aplikatuko zaio».

Zioak: Segurtasun juridiko handiagoa eman nahi zaio aipatu partidari, eta horretarako, laguntza zein xedetarako den zehazten da. Kontuan hartuta gaur egun energia berriztagarriak giltzarri direla murgilduta gauden eraldatze ekologikoan, ahalik eta ahalegin handiena egin behar dugu Nafarroak sektore horretan duen erreferentziatzko zentroa lagundu eta sendotzeko.

## 12. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrendak murrizteko kredituen kudeaketa izeneko 47. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurrekontuko partidak nahikoak dira itxarote-zerrendak kudeatzeko, baldin eta eragin-kortasunez eta efizientziaz egiten bada; ez da beharrezkoa prestazio eta itunez bezainbatean historiako aurrekonturik altuena handitzea; gainera, aldi berean, EH-Bildurekin aurrekontu-akordio bat sinatu da, osasun-pribatizazioak aztertu eta murrizteko, legegaldi honetan % 38 igo baitira; peonaden kasuan % 167 igo dira, eta inoizko itxaronaldi okerrenak daude kontsulta, kirurgia eta azterketa medikoei dagokienez. Ezinbestekoa da baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzea, eta ez dugu uste hori egiteko partida horiek are gehiago handitu behar direnik, ezta haietara zergatik ezin diren egokitu ere.

**13. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

«Lehenengo xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

Orokortasunez luzatzen dira, 2023rako, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ekainaren 21eko 10/2003 Foru Legearen 1. artikuluan aurreikusiak.

Erretiroa hartzeko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatutako 1. artikulua funtzionario guztiei aplikatuko zaie, funtzionarioa atxikita dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistema zein den ere, barne harturik Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboan araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikiak ere.

Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanen du bere zenbait langileren zerbitzu aktiboa 2023. urtean zehar luzatzea zerbitzuaren premiengatik eta profesionalik eza-rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko legezko erretirorako adinera iritsi ondoren, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen bera-riazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5. estamentuetako profesional fakultatiboei, baldin eta norbere espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago. Luzapena baimentze aldera inguruabar hori egiaztatzeko momentua izanen da legezko erretirorako aurreikusita dagoen data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarria izanen da baimen-ematearen baldintzei eutsiz gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugatzat harturik».

Zioak: Medikuei eskubiak baldintzatu du, zerbitzu-beharren aurrean, Nafarroan fakultatiboek lanbide-jardunean jarraitu ahal izatea, modu justifikatua, kontzeptu hori babesten baitugu. Administrazio Publikoak osasun-sistema publikoari ekarpen handia egiten jarrai diezaioketen medikuen balioa, esperientzia eta ezagutza galtzea saihesteko neurriak ahalbidetu behar ditu, batez ere lanpostu hutsak dituzten profesionalen eskasia-egoera batean, Nafarroako Gobernua ez baita

gai egoera hori estaltzeko, eta Nafarroako herritarrei eskubideak eta asistentzia-kalitatea galtzea baitakarte. Baina kontzeptu hori ez dugu burutzekin lotzen. Erretiroa aurreikus daitekeen zerbait da, eta Administrazio Publikoan burutzak betetzen dituzten lider klinikoek beren burutzen trantsizioa denboraz prestatu beharko lukete. Gainera, laguntza-arloko gainerako medikuek ere buruzagitzalana egiteko eskubidea dute, beren lanbide-garapenaren barruan. Burutza-lanak ez dira eskasak Administrazioan; falta direnak, berriz, laguntza-arloko medikuak dira, eta ez burutzetan profesionaltasunez eta lidergoz jarduteko gai ez diren pertsonak. Orain 65 urtetik gorako medikuek buruzagitzalana egiten jarrai dezaten onartzeak ekitaterik eza eta desberdintasuna dakarkie urte hauetan buruzagitzari uko egin eta beren erreleboa prestatu zutenei, 65 urtetik aurrera, ez burugisa, laguntza-arloko mediku gisa baizik jardun dutenei, eta, gainera, ekitaterik eza eta aukeradesberdintasuna dakarkie beren lanbide-garapenean buruzagitzari horiek eskuratu ahal dituzten eta eskuratu nahi dituzten beste mediku batzuei.

**14. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako hautapen prozesuei dagozkien xedapenak izeneko bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatua kentzeko zuzenketa.

Apartatua/paragrafoa kentzea: 1

«1. Nafarroako Administrazio Publikoari ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdietako eskabideak eta gainerako dokumentazioa baliabide elektronikoen bidez aurkez daitezela eskatzeko».

Zioak: Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdietan parte hartzeko eskabideak telematikoki aurkeztea bide onargarri bakar gisa exijitzeko aukerak kaltetu ditzake eskabideak bide horren bitartez egiteko modurik ez dituzten pertsonak, bereziki pertsona zaurgarriak.

**15. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako kontratazio-prozesuetan egiten dituzten deial-

diei buruzko xedapenak izeneko hirugarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hautagaiak deitzeko eta aldi baterako kontratuen hautaketa soilik bide telematiko eta elektronikoen bidez egiteko aukerak kalte konponezinak eraberraz diezazkieke lanpostu baterako hautagaiari, baldin eta ez bada egiten berme egokiak, eta berme horiek ez daude legez ezarrita.

## 16. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Jarduneko zerbitzuan jarraitzeko salbuespena izeneko zazpigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapenak 70 urtetik gorako pertsona jakin batek bere lanpostuan jarraitzea nahi du, baina, aldi berean, Foru Komunitateko Administrazioako langile guztiek 65 urterekin erretiroa hartzeko betebeharrari eusten zaio, salbu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko salbuespen jakin batzuetan.

## 17. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Transferentzien Batzordea izeneko hogeigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Transferentzien Batzordearen erregulazioa aipatu 2356/1984 Errege Dekretuan egiten da, eta Nafarroako Gobernuari eta dekretuan adierazitako Ministerioari dagokie. Ez da egokia funtzionamendua erregulatzeko aipatu Errege Dekretuaz bestelako xedapen batean.

## 18. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak baimena eman dezake funtsak mugit-

tzeko “Lanbide-karrera aldi baterako zerbitzuak” izeneko 020002-04100-1800-921405 partidaren eta “Lanbide-karrera aldi baterako zerbitzuak” izeneko 540000-52000-1800-311100 partidaren kargura, aldi baterako kontratupeko osasun arloko langile fakultatiboei eta diplomadunei lanbide-karrerarako eskubidea eta lanbide-karreraren ondorioetarako aldi baterako kontratualdian emandako zerbitzuak aitortzearen ondoriozko gastuaren egozpena duten partidak finantzatzeko. Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak, hain zuzen».

Zioak: Aldi baterako kontratupeko osasun arloko langile fakultatiboei eta diplomadunei lanbide-karrerarako eskubidea eta lanbide-karreraren ondorioetarako aldi baterako kontratualdian emandako zerbitzuak aitortzeari dagokion gastuaren kargua egiten den partidak finantzatzeko eta 1. kapituluko aurrekontua ez blokeatzeko xedez, beharrezkoa da ez hartzea aurrekontu aldaketatzat 020002-04100-1800-921405 partidatik –“Lanbide karrera aldi baterako zerbitzuak” izeneko– eta 540000-52000-1800-311100 partidatik –“Lanbide karrera aldi baterako zerbitzuak” izeneko– zordunketa-partidetara egiten den kreditu-intsuldaketa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearekin bat. Hori dela-eta, honako xedapen gehigarri hau gehitzea proposatzen da.

## 19. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Konpromisoa 2023ko lehen lauhilekoan, eta langileen legezko ordezkartzarekin batera, egun lanbide-karrera aitortuta ez duten osasun-alorreko langileen (osasun-teknikariak, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariak...) karrera arautzeko arau-esparru baten proposamena lantzeko, eta pixkanaka ezartzeko, behar besteko aurrekontuzuzkidura dagoen heinean».

Zioak: Gaur egun lanbide-karrera aitortuta ez duten osasun-alorreko langileen lanbide-karrera garatzea eta arautzea.

## 20. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
ETA GEROA BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK ETA  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa:

«Gaikuntza Osasun Departamentuari eta haren organismo autonomoei atxikitako osasun-alorreko langileek irakaskuntza- edo ikerketa-ekin-tzetan parte hartzeko.

1. Osasun Departamentuari eta haren organismo autonomoei atxikitako osasun-alorreko langileek irakaskuntza-lankidetzan jarduten ahalko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, beren eginkizunen esparruan, irakaskuntza biziagotzeko programetan parte hartuz, horrelakoak ezartzen direnean Nafarroako Gobernuaren eta aipatutako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenen bidez.

2. Era berean, Osasun Departamentuari eta haren organismo autonomoei atxikitako osasun-alorreko langileei gaikuntza ematen zaie beren eginkizunen esparruan ikerketa-ekintzak egin ditzaten, Nafarroako Gobernuarentzat interesgarriak direnak, foru-erkidegoko sektore publiko instituzionaleko entitateetan.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako jarduerak egiteko baimena eman ahal izateko, aurrez lortu beharko da Osasun Zuzendaritza Nagusiaren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzaren edo Nafarroako Osasun Publikoaren edo Lan Osasunaren Institutuaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ebazpena, interresdunari dagokion organoaren arabera».

Zioak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei erraztasunak ematea irakaskuntzan jarduteko, eta NUPeko medikuntza fakultatean irakasle gisa jarduteko bidea ematea.

## 21. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Aitortzea lanbide-karrerarako eskubidea aldi baterako kontratupeko osasun-alorreko langile fakultatiboek eta diplomadunei, eta aitortzea aldi baterako kontratualdian emandako zerbitzuak, lanbide-karreraren ondorioetarako.

1. Aldi baterako kontratupeko osasun-alorreko langile fakultatiboek eskubidea izanzen dute aplikatua izan dakien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun-langile batzuetara zabaltzen duen maiatzaren 9ko 7/2017 Foru Legean jasotako lanbide-karrerako sistema, dagokien atxikipen-esparruaren arabera, beren jabetzako plaza duten langileen baldintza berberetan.

2. Aldi baterako kontratupeko osasun-alorreko langile diplomadunek eskubidea izanzen dute aplikatua izan dakien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duen maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legean eta Osasun arloko langile diplomadunei, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxikita daudenei izan ezik, aplikatu beharreko lanbide karreraren sistema ezartzen duen abenduaren 21eko 23/2016 Foru Legean jasotako lanbide-karrerako sistema, dagokien atxikipen-esparruaren arabera, beren jabetzako plaza duten langileen baldintza berberetan.

3. Osasun-alorreko langile fakultatiboek eta diplomadunei, lehen aipatutako foru legeetan araututako lanbide-karrerako sistema aplikagarri zaienean, kontuan hartuko zaizkie aldi baterako kontratualdian emandako zerbitzu guztiak, jabetzako lanpostuan egondakoan emandako zerbitzuen baldintza berberetan.

4. Xedapen honetan ezarritako aitortzaren ondorioz sortutako lanbide-karreragatiko ordainsariak lau urteko atzeraeraginez ordainduko dira, foru lege hau indarrean jartzen denetik aurrera; edonola ere, interesdunek eskubidearen aitortpena eskatu badute lehenagotik, lau urteko atzeraeraginaren epea eskaera egin zutenetik aurrera zenbatuko da».

Zioak: 11/1999 Foru Legea, apirilaren 6koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena eta 8/2008 Foru Legea, maiatzaren 30ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langile diplomadunen lanbide karreraren sistema ezarri, eta finantzabiderako kreditu gehikuntza onesten duena.

Berriki, zenbait epai eman dituzte Iruñeko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegieki, zeinen bidez lanbide-karrerarako eskubidea aitortzen baitzaie Osasun Departamentuko kontratupeko langileei.

Hori horrela, berdintasun-printzipioari ahalik eta aplikazio zabalena emate aldera, eta egungo jurisprudentzia betez, lanbide-karrerarako eskubidea aitortu behar zaie aldi baterako kontratupeko osasun-alorreko langile fakultatiboek eta diploma-dunei.

## 22. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

«Lankidetzeta-hitzarmena, Espainiako Gobernuaren Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin artekoa, Nafarroan abiadura handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko.

Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatearen ordezkari gisa, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuko du 2023an, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioarekin, Espainiako Gobernuaren ordezkari den heinean, Nafarroan Abiadura Handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko. Hala, Nafarroako Gobernuak lizitatuko ditu sareko obrak, Estatuak, urtero, dagozkion Estatu-ko Plan Orokorretan Nafarroako Foru Komunitatearen esku jartzen dituen baliabideen bidez. Hitzarmen horrek beharrezko obren eta baliabideen egutegi bat ezarri beharko du, 2027an guztiz amaitzeko moduan».

Zioak: Beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak benetako konpromisoa izatea AHTrekin, asmo onen adierazpenetik harago joanen dena. Azpiegituran egindako inbertsio bat da, eta trakzio-ahalmen handia du jarduera ekonomikoan, biderkatzaileria delako, eta, beraz, enplegua berreskuratzeko eta sortzeko formula bereziki egokia da. Gainera, Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunaren etorkizunaren aldeko apustua da, bere ingurune geografiko eta ekonomikoarekin hobeto lotzen baitu, eta hori ezinbestekoa da gure kanpoko sektore erabakigarriarako. Era berean, lurraldea egituratzen lagundu dezake, eta konektibitatea hobetu.

## 23. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Aparteko mugaketa etxebizitza babestuen errentamendu-kontratuen errentaren urteroko eguneratzean.

1. Etxebizitza babestuko alokairu-kontratu batean errentari den pertsonak, etxebizitza hori errenta-prezioaren mugaketei lotuta badago, eta dagokion urteroko epea betetzen delako errenta eguneratu egin behar bada 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko irailaren 30era bitarte, errentaren urteroko eguneraketa horretan aplikatuko den igoera negoziatzen ahalko du errentatzailearekin, honako baldintza hauei jarraikiz:

a) Errentatzailea pertsona juridikoa bada, errentaren igoera alderdien arteko itun berrian adierazitakoa izanen da, eta ezin izanen du gaitu eguneratzearen datako Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen urteko aldakuntza aplikatuz ateratzen den emaitza, eguneratzea egiteko erreferentziatzeko hil gisa kontratua eguneratu zenean argitaratuta zegoen azken indizeari dagokion hila hartuta. Alderdien arteko itun berririk ez badago, errentaren igoera mugaketa horren berraren mende egonen da.

b) Errentatzailea pertsona fisikoa bada, errentamendurako edo erosketa-aukeradun errentamendurako kalifikatutako etxebizitza babestuen



promozio baten jabea dena, errentaren igoera alderdien arteko itun berrian adierazitakoa izanen da, eta ezin izanen du gaintitu eguneratzearen datako Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen urteko aldakuntza aplikatuz atera den emaitza, eguneratzea egiteko erreferentzia hila gisa kontratua eguneratu zenean argitaratuta zegoen azken indizeari dagokion hila hartuta. Alderdien arteko itun berririk ez badago, errentaren igoera mugaketa horren beraren mende egonen da.

c) Errentatzailea pertsona fisikoen gainerako modalitateetako batean badago, errentaren igoera alderdien arteko itun berrian adierazitakoa izanen da, eta ezin izanen du gaintitu eguneratzearen datako Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen urteko aldakuntza aplikatuz atera den emaitza, eguneratzea egiteko erreferentzia hila gisa kontratua eguneratu zenean argitaratuta zegoen azken indizeari dagokion hila hartuta, eta ehuneko batean handituta. Alderdien arteko itun berririk ez badago, errentaren igoera mugaketa horren beraren mende egonen da.

2. Aurreko apartatuaren eraginpeko errentamendu-kontratuaren 2023ko irailaren 30etik aurrera egin beharreko errenta-eguneratzeetan eta hurrengoetan, errenta-igoera, hala badagokio, aurreko apartatuaren arabera kalkulatuak errentaren gainean egiten da, eta ez mugaketa hori gabe egokitu izanen litzatekeen errentaren gainean».

Zioak: Inflazioaren eragina minimizatzea aldi baterako etxebizitza babestuen errentamendu-kontratuaren.

## 24. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aldaketaren azken xedapenetako bigarrenari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa.

«Zazpi. 36.1 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Adjudikazio botereek zerbitzu-, obra- eta hornidura-kontratuen eta zerbitzuak emateko kontratuen adjudikaziorako prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatuko diete irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro bereziei edo ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziei, laneratze-enpresei edo irabazi-asmorik gabeko entitateei, aurrez laneratze- eta gizarteratze-zentro gisa kalifikatuak izan diren laneratze-enpresen sustatzaile badira %100ean”.

Zioak: Behar-beharrezkoa da ekiditea irabazi-asmorik gabekoak diren eta bere garaian laneratze- eta gizarteratze-zentroen sustatzaile izan ziren erakundeak, enplegu-zentro berezien araudiak langileen egonaldi-denborari dagokionez ezartzen dituen mugen ondorioz, desagertzeko arriskuan egotea. Artikulu hori aldatu ezean, arriskuan jarriko litzateke horien etorkizuna eta bideragarritasuna, eta balizko desagerpen batera bultzatuko lirateke, ezin baitute lizitazio horietan parte hartu.

Horregatik guztiagatik, entitate horiek oso egoera zailari egin behar diote aurre, eta, beraz, beharrezkoa da 36.1 artikulua aldatzea proposatutako eran, arrazoi sozialengatik erreserbatuak izan diren kontratuaren esleipen-prozeduretan laneratze- eta gizarteratze-zentro gisa kalifikatuak izan diren laneratze-enpresen %100eko sustatzaile diren irabazi asmorik gabeko entitateek parte hartu ahal izan dezaten (Nafarroan, gaur egun laneratze-enpresa diren 9 entitate bakarrik izan ziren laneratze- eta gizarteratze-zentro), aitortpena emanez laneratze- eta gizarteratze-zentroi ere ondorio horietarako, kontratuen foru legean beste alderdi batzuetan egin den eran.

## 25. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Eliza Katolikoaren barnean Nafarroan gertatutako sexu-abusuen biktimei errekonozimendua adierazteko uztailaren 5eko 24/2022 Foru Legea aldaketaren azken xedapenetako laugarrena kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bidegabekoa iruditzen zaigu uztailaren 5eko 24/2022 Foru Legea aldatzea, eta ez zaigu beharrezkoa iruditzen konpentsazio ekonomiko horiek ezartzea.

**26. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«4/2022 Foru Legea aldatzea, martxoaren 22koa, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzkoa.

68. artikuluan 4. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Energia elektrikoa merkaturatzen duten enpresek, autokontsumoko kontratuetan konpentsazio sinplifikatua edo alderdiek adostutako soberakinak konpentsatzeko beste mekanismo batzuk aplikatu ondoren, klima-funtsean erabiliko dute soberako energia, energia-pobreziako egoeran dauden pertsonen energia-beharrei erantzuteko».

Zioak: Honako hau dio martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 68. artikuluan 4. apartatuak:

“4. “Energia elektrikoa merkaturatzen duten enpresek, autokontsumoko kontratuen konpentsazio sinplifikatua aplikatu ondoren, soberako energia erabiliko dute klima-funtsean, energia-pobreziako egoeran dauden pertsonen energia beharrei erantzuteko”.

Energia Sektorearen Legeak 9. artikuluan jasotzen du autokontsumoaren arauketa, eta bidea ematen du erregelamendu bidez garatu ahal izateko konpentsazio sinplifikatuko mekanismoak, autokontsumitzaileen defiziten eta horien ekoizpen-instalazio elkartuen soberakinaren arteko konpentsaziorakoak; edonola ere, horiek ezin izanen dute 100 kW baino potentzia handiagorik izan. Gaikuntza horrekin bat, 244/2019 Errege Dekretuak 14. artikuluan arautzen du konpentsazio sinplifikatuko mekanismoa.

Egungo sistemak, beraz, bi aukera hartzen ditu kontuan, eta horien aldeko hautua egin daiteke hala nahi izanez gero, autokontsumoarekin lotutako sorkuntza-instalazioen soberakinei dagokienez:

A) gainerako ekoizpen-instalazioek ekoiztiko energiaren tratamendu bera, eta

B) konpentsazio sinplifikatuko mekanismoa, autokontsumitzaileen defiziten eta horien ekoiz-

pen-instalazio elkartuen soberakinaren artekoa. Kontsumitzaile eta ekoizle elkartuek konpentsazio-mekanismo horri atxikitzea erabakiz gero, ekoizleak ezin izanen du energia saltzeko beste mekanismo batean parte hartu; hau da, konpentsatzea erabakiz gero, soberakin dagoen energia guztia mekanismo horretan sartuta gelditzen da.

Edonola ere, nahiz eta konpentsazio-mekanismo hori aplikatu, alderdien borondatearen autonomia egikaritzuz, konpentsazio sinplifikatua- ren antzeko beste mekanismo batzuk adosten ahalko dira, denbora-esparru zabalago batekin, konpromisoa izenpetu duten horiek bakarrik lotuz. “Bateria birtual” izenez ezagutu dena izanen litzateke hori. “Bateria birtual” delako figura horrek arau-garapenik ez duen artean konpentsazio-mekanismo gisa Sektore Elektroaren Legearen 9.5 artikuluan esparruan, partikularren arteko akordio bat besterik ez da, eta ez du hirugarrenik lotzen.

Azken finean, “bateria birtual” delakoak bidea ematen du sarera doazen soberakin fotovoltaiko guztiak monetizatzeke, eta behar besteko soberakinik ez dagoen hiletan konpentsatzeko. Urteroko konpentsazio baten antzekoa da hori.

4/2022 Foru Legeak ez du kontuan hartu “bateria birtual” delako aukera hori, zenbait merkaturatzailek eskaintzen dutena. Xedapen berri horrek eraginpeko zenbait pertsonarekin hitz egin ondoren, esaten da foru legeak kalte larriak eragiten dizkiela autokontsumitzaile txikiei, aukera horretatik kanpo uzten baititu, gainerako autonomia-erki- degoetan gertatzen denaren kontrako aldean.

**27. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

19/1996 Foru Legea aldatzea, azaroaren 4koa, Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Aldatu egiten dira Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3 bis artikuluan 3. eta 4. puntuak, eta idazketa hau izanen dute aurrerantzean:

“3. Aurreko idatz-zatian araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatik ordainsariekin, sektore publikokoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatik dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseiluetara joateagatik dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Aipatutako ordainsariak edo diru-sarrerak txikiagoak badira, urteko zenbaketan, aurreko apartatuan ezarritako prestazio ekonomikoa baino, aldea jasotzeko eskubidea besterik ez dute izanen.

4. Inola ere ez dute aurreko apartatuetan ezarritako prestazioa jasoko administrazio publiko batean edo horien mendeko erakunde autonomo batean lanpostu bat erreserbatuak duten enplegatu publikoek, ez eta kargua utzi ostean aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotatik erretiro-pentsioa jasotzen dutenek ere»».

Zioak: Erretiro-egoerara igarotzen diren pertsonentzako kargua uzteagatik ordainsaria ez da oinarritzen figura horren justifikazioan, horren xedea baita goi-kargu batean egon diren pertsonen goi-kargu bat izan ostean sortzen diren bateraezintasunen ondorioz gero lanpostu batera itzultzeko dituzten zailtasunak konpentsatzea. Gainera, lehen eta bigarren mailako penziodunak sortzen dira.

## 28. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«6/1990 Foru Legea aldatzea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 192. artikularen 2. puntuaren d) idatz-zatia aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“d) Tokiko merkataritza-sozietatea, haren kapital soziala titulartasun publikokoa denean”».

Zioak: Mercairuña abenduaren 27an eraturako sozietate anonimoa da, eta honako akziodun publiko hauek osatzen dute: Iruñeko Udala

(partaidetzaren %51 du), Mercasa (%40 du) eta CPEN (gainerako %9a du).

Mercairuñak hornikuntzako merkatu zentralen zerbitzu publikoa kudeatzen du enpresa misto gisa; izan ere, egungo araudiarekin bat, ezin da jo kudeaketa zuzeneko zerbitzu publikotzat.

Enpresa misto izate horren ondorio gisa, Mercairuña desegin egingen da administrazio-emakida jaso zuenetik 50 urte igaro diren honetan, eta sozietatearen aktiboa eta pasiboa Iruñeko Udalari itzuliko zaizkio, nahiz eta horrek ez duen eragotziko beste bi akziodun publikoen partizipazioaren balioa likidatzea.

Nahiz eta, araudia aldatzen ez bada, enpresa 2028ko urtarrilaren 31n desegingo den, adierazi behar da ezarritako iraungipen-data hori oso eragin kaltegarriak izaten hasi dela jada bere jardueran, inbertsioei, amortizazio-aukerei, bezeroei eta abarri dagokienez. Hortaz, lehenbailehen konpondu behar da ziurgabetasun hori, Toki Administrazioaren Legea aldatuz, kapital osoa publikoa duten sozietateak, nahiz eta kapital guztia ez izan tokikoa, iraungipenari lotu gabeko kudeaketa-tresnatzat jo ahal izateko.

## 29. ZUZENKETA

### NAVARRA SUMA

#### TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«23/2018 Foru Legea aldatzea, azaroaren 19koa, Nafarroako Polizieiei buruzkoa.

Azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da, eta honako testu hau izanen du aurrerantzean:

“Edonola ere, gai hau arautzeko baldintza gisa ezartzen da ordu-kompentsazioa aukeratzen dutenek ezin izanen dutela bosgarren xedapen gehigarrian jasotako jardunaldiaren hamabirenaren murrizketa baliatu”».

Zioak: Xedea da foru legea indarrean jarri ostean foruzain bihurtu direnentzat diskriminatzailea den egoera bat desagerraraztea, are gehiago konpentsazio hartuta legea indarrean jarri zenetik lau urte baino gehiago igaro diren honetan oraindik ez dela erregelamendu bidez garatu, eta, beraz, ez dela aplikatzen aipatutako xedapen iragankorra.

**30. ZUZENKETA****NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«7/2022 Foru Legea aldatzen da, martxoaren 22koa, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsa.

Toki-erakundeek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsa transferentzia arrunten bidez nola banatu ezartzen duen martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legearen xedapen indargabetzaile bakarra kentzea, 16/1997 Foru Legeari dagokionez, abenduaren 2koari, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duenari».

Zioak: Iruñeko Udalaren finantza-egonkortasuna eta -nahikotasuna bermatzen dituen foru legea berreskuratu behar da, herritar nafarrei ematen dizkien zerbitzuen konpentsazio gisa.

**31. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA  
EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA  
IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa.

«10/2020 Foru Legea aldatzen da, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa, eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarri bat gehitzen da, honako testu honekin:

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Dirulaguntzen ehuneko berriak babes ofizialeko etxebizitza berria eskuratzeko.

1. Lehen eskualdaketako babes ofizialeko etxebizitzak erosteko edo esleitzeko kontratueta-rako, administrazioak ikus-onesteko 2023ko urtarriaren 1etik aurrera aurkezten direnean, dirulaguntzen zenbatekoak, familiako diru-sarreraz haztatuen tarteen arabera, honako hauek izanen dira, etxebizitza, garaje eta trasteleku erantsien salmenta- edo esleipen-prezioaren gaineko ehuneko gisa adierazita:

	SARA INDIZIEA 2 ALDIZ GEHIENEZ	SARA INDIZIEA 2 ALDITIK 2,5 ALDIRA	SARA INDIZIEA 2,5 ALDITIK 3,5 ALDIRA
Babes ofizialeko etxebizitzak	%16	%12	% 7

Norberaren erabilerarako babes ofizialeko etxebizitzak banakako sustapenetan, behin-behineko kalifikaziorako 2023ko urtarriaren 1etik aurrera aurkezten badira, ehuneko berak aplikatuko dira etxebizitza, garaje eta trasteleku erantsien guztizko kostuaren gainean.

2. Etxebizitzak alorreko eskumenak dituen departamentuaren titularrak emandako foru-agindu bidez aldatzen ahalko dira ehuneko horiek.

Zioak: 28/2022 Foru Legeak, urriaren 11koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroako etxebizitza-erlako jarduketa babesgarriei 2023an aplikatzekoak zaizkien moduluak (212. NAO, 2022ko urriaren 26koa), modulu haztatuaren haz-

kunde bat finkatu du, %9,9koa, 2022ko urriaren 27tik aurrera behin-behinean kalifikatzen diren sustapenetan aplikatzeko.

Hazkunde horrek, etxebizitza babestuen sustapena aktibatzen ahalegintzeko beharrezkoa denak, proportzio berean eragiten dio Nafarroako etxebizitza babestuen salmentari. Zuzenketa honekin lortu nahi da arintzea kolektibo zaurgarrienek etxebizitza erosteko egin beharreko ahaleginaren hazkundera.

Dirulaguntzen egungo ehunekoak jasota daude etxebizitzaren erlako jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 27. artikulua 3. apartatuan.

	OAEAP-Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa 2 ALDIZ GEHIENEZ	OAEAP 2 ALDITIK 2,5 ALDIRA	OAEAP 2,5 ALDITIK 3,5 ALDIRA
Babes ofizialeko etxebizitzak	%12	%10	%6
Prezio tasatuko etxebizitzak	%6	%4	%2

Babes ofizialeko etxebizitza erosteko dirulaguntzen ehunekoaren igoera modu mailakatu-tuan proposatu da, lehentasuna emanez diru-sarrera gutxien dituzten familiei.

## 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren kontu-sailei aurkezturiko zuzenketak

## GASTUEN EGOERA-ORRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
32	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakartzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	NA+
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 80.000	<b>Orga.</b> 01000	<b>Funtzionala Kontu-saila</b> 2269 921100	Irigarritasun unibertsala
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
33	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	010 Lehendakartzaren eta Gobernu Irekiaren jarduera orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	NA+
<b>GEHITZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 400.000	<b>Kontu-saila</b>	Irigarritasun unibertsalerako obrak	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
34	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 6.500.000	<b>Orga.</b> 02100	<b>Funtzionala Kontu-saila</b> 1800 132100	Nafarroako polizia buruzko Foru Legea aplikatzea
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
35	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 40.000	<b>Orga.</b> 02100	<b>Funtzionala Kontu-saila</b> 6032 132100	Lanabes eta tresnak
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
36	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>ALDATZEKO</b>	<b>Zenbatekoa</b> 150.000	<b>Orga.</b> 02100	<b>Funtzionala Kontu-saila</b> 6054 132103	Transmisio-ekipoak
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				

37	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbatekoa</b> 350.000	<b>Kontu-saila</b> Dokumentuak digitalizatzeko eta datu-baseetara sartzeko gailu mugikorrak	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
38	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbatekoa</b> 180.000	<b>Kontu-saila</b> Disuasio-armak Foruzaingorentzat	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
39	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbatekoa</b> 75.000	<b>Kontu-saila</b> Bakarriko NBEak	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
40	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbatekoa</b> 25.000	<b>Kontu-saila</b> Taser pistolak	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
41	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	051 Herritarren segurtasuna	051000 Foruzaingoa	NA+
<b>GEHITZEKO</b>		<b>Zenbatekoa</b> 20.000	<b>Kontu-saila</b> Polizia-ibigailuetarako desfibriladoreak	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
42	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060003 Ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea	NA+
<b>KENTZEKO</b>		<b>Zenbatekoa</b> -40.000	<b>Orga. Ekon. Funtzionala</b> 06100 2276 921500	<b>Kontu-saila</b> Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea

43	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060003 Ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea	GEROA BAI Y EH BILDU
<b>ALDATZEKO</b>				
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
44	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060003 Ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea	APF PODEMOS
<b>GEHITZEKO</b>				
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
45	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	NA+
<b>ALDATZEKO</b>				
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
46	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	PSN, GEROA BAI, EH BILDU Y APF PODEMOS
<b>ALDATZEKO</b>				
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
47	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	NA+
<b>ALDATZEKO</b>				
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
48	0 - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	NA+
<b>ALDATZEKO</b>				
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				



49	0 - Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barmeko Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak APF PODEMOS
